

Bezeroekiko harremanak

Presentzia sare sozialetan: bezero berriak edota jada bezeroak direnekin kontaktu zuzenaren egotea da gure helburua, harremana mantenduz eta berrikuntzak ezagutzera emanez, sare sozialak erabiliko ditugu. Horretarako, Instagram eta TikTok erabiliko dugu, bakoitzari erabilera desberdina emanez:

- Instagramen bidez, gure jardueren eta arte-erakusketen irudiak eta bideoak partekatuko ditugu. Horrez gain, ekitaldien egutegiak argitaratuko ditugu, bezeroek informatuta mantentzeko.
- TikTok, zaborra arte bihurtzearen prozesua erakusten duten bideo laburrak argitaratuko ditugu. Horrez gain, gazteen arreta deitzeko, erronka biralak egingo ditugu, hala nola "plastikorik gabeko eguna" bezalakoa.

Bezeroak leialtzea: Bezeroek iraunkorrak izateko, etengabeko komunikazioa ezinbestekoa dela deritzogu. Era berean, helburu hori lortzeko hurrengo urratsak jarraituko ditugu:

- Proiektu honetan parte-hartzaileak informatuta mantentzearen helburuarekin, WhatsApp taldeak sortuko ditugu.
- Aintzatespen publikoa; sare sozialetan eta erakusketetan nabarmendu bezeroen argazkiak eta izenak (haien baimenarekin).

Bezeroekiko interakzio-formatuak:

- Arreta pertsonalizatua eskainiko dugu sare sozialetan, posta elektronikoaren eta telefonoaren bidez, bezeroen edozein zalantza edo kezka azkar eta eraginkortasunez argitzeko.
- Bezeroekaz tratatu adiskidetsua izango dugu, euren konfiantza irabazteko.
- Etengabeko hobekuntza ziurtatzeko feedbacka ezinbestekoa dela uste dugu, beraz, bezeroei euren iritzia eta iradokizunak partekatzera animatuko diegu, gure jarduerak hobetzeko eta haien beharretara hobeto egokitze. Interakzio-formatu horiek parte-hartzaileentzako esperientzia egokia bermatuko du, proiektuarekiko konpromisoa indartuz eta epe luzera haien leialtasuna sustatuz.

Udalekiko harremanak: Gure bezero garrantzitsuenak udalak izango dira, beraz, beraien harremana sustatzeko, hurrengoa proposatu dugu:

- Ekintzei buruz eztabaidatzeko eta proiektuaren onurak aurkezteko batzarrak egitea, udalak eguneratutak egon daitezten.
- Zabor bilketa amaitzerakoan, jardueren emaitzak erakusten dituzten inpaktu-txostenak egitea, bildutako zabor tonak edo herritarren parte-hartzea bezalako datuekin.
- Iraunkortasunera eta ingurumen-hezkuntzara bideratutako proiektuen proposamenak garatuko ditugu udalekin lankidetzarekin batera. Bertan, kontzientziazio-kanpainak, tokiko eskoletako hezkuntza-programak eta ekitaldi komunitarioak sartuko dira.